

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

### Zeure ingurua aprobetxatuta:

- ✓ Ziur zeuk ere kirolen bat (ariketa fisikoren bat, zaletasun bat...) praktikatzen duzula. Osa ezazu kirol (ariketa fisiko, zaletasun...) hori modu egokian praktikatzeko argibideak eta aholkuak jasotzen dituen esku-orria. Eraman ikasgelara, eta erakutsi ikaskideei.

### Internet aprobetxatuta:

- ✓ **Ikusi** honako **bideo hau**: [Abiadura lantzeko aholkuak](#). Ondoren, **graba ezazu** zeuk ere aholkuak emateko **bideo labur bat (erabili ikasgelan sortu duzun esku-orria)**, eta **igo bideo-tutoriala euskaltegiaren blogera**. Nahi izanez gero, igo aurretik, emaiozu irakasleari, begiratu bat eman diezaion.
- ✓ Ba al dakizu nor den **Hyvon Ngetich**? Zergatik izan zen famatua? **Jaso** Interneten atleta horren inguruko informazioa, eta, horretaz gain, irakurri *Berria* egunkariko **artikulu hau**: *Hau al da nahi dugun kirola?* Ondoren, **idatzi**, labur-labur, zer iruditu zaizun, ados zauden, ez zauden ados, zergatik... **Bidali ikaskide bati** (helbide elektronikoa, whatsapp-a...), eta **harekin komentatu klasean**.
- ✓ Ezagutzen al duzu **kirola egiteko aplikaziorik**? Zein? Ikus ezazue gai hori jorratzen duen [Teknopolis saioa](#), **jaso** aplikazio horien inguruko informazioa, eta **komentatu ikaskide batekin klasean: erabilgarriak al dira app horiek?**
- ✓ Ba al dakizu **zenbat kirol-proba** egiten diren urtean Gasteizen? **Jaso** Interneten horren inguruko informazioa, eta eramán ezazu ikasgelara. Elkartu ikaskide batekin, eta **osa ezazue** bion artean **GASTEIZKO KIROL-PROBEN EGUTEGIA**. Behin osatuta, alderatu gainontzeko ikaskideekin. Guztion artean, egutegia bakarra osatu eta **euskaltegiaren blogera igo**.
- ✓ Lan-unitate osoan ikusiko dugun bezala, asko eta asko dira kirolean erabiltzen ditugun **anglizismoak**. Horren beste adibide argi bat da *Jon eta Jone* irratsaioaren **atal hau**. **Entzun ezazu**, **beste audio bat entzungo duzu**; hor, Andoni Sagarna Euskaltzaindiaren Hiztegiaren eta Behatokiaren zuzendariari egindako elkarrizketaren berri jasoko duzu, eta, hala, jakingo duzu zein den **Euskaltzaindiaren iritzia** anglizismoaren inguruan. Informazio guztia entzunda, **audio labur bat grabatuko duzu** horren inguruan duzun iritzia azaltzeko, eta ikaskide bati bidaliko diozu.
- ✓ Garai bateko lan-jarduerak aisialdira bideratzean jaio ziren gaur egun ezagutzen ditugun **herri kirolak**, eta asko dira oraindik ere kirol horien jarraitzaileak. Ikus ezazu EiT布伦 [Gutariko bat saioa](#); hor, **Reyes Prados aurkezle sevillarra herri kirolen munduan** murgildu da. Horretarako, euskal kirolari adituenekin ibili da hainbat modalitate praktikatzen: besteak beste, aizkora hartuko du eta **Joxe Mari Olasagasti eta Kristina Saralegirekin** izango da; **Pabi eta Irati Astondoa** ere ezagutu ditu, eta beraiekin segalari moduan arituko da; gainera, harri-zulatzaille modalitatea probatu du Gallartan. **Saioa ikusi**, eta **komentatu ikaskide batekin klasean**: ezagutzen al dituzue herri kirolak?, zer iruditzen zaizkizue?...